


uztaila ■ 2020

# Atzerritar jatorriko pertsonen ekarpen ekonomikoa EAEn BPGd-ren bidez (2018)

Arkaitz Fullaondo Elordui-Zapaterietxe, Álvaro Fierro Sedano



**Fullaondo Elordui-Zapaterietxe, Arkaitz**

Atzerritar jatorriko pertsonen ekarpen ekonomikoa EAEn BPGd-ren bidez (2018) [Recurso electrónico] / Arkaitz Fullaondo Elordui-Zapaterietxe, Álvaro Fierro Sedano. – Datos. – Bilbao : Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea, Argitalpen Zerbitzua = Servicio Editorial, 2020. – 1 recurso en línea : PDF (37 p.)

En la port.: Ikuspegi, Inmigrazioaren Euskal Behatokia = Observatorio Vasco de Inmigración, Cultimetría y Eusko Jaurlaritza, Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila, Familia Politikako eta Aniztasuneko Zuzendaritza = Gobierno Vasco, Departamento de Empleo y Políticas Sociales, Dirección de Política Familiar y Diversidad.

Modo de acceso: World Wide Web.

ISBN: 978-84-1319-269-7.

1. País Vasco – Emigración e inmigración – Aspecto económico. I. Fierro Sedano, Alvaro, coaut.

(0.034) 314.74:338.1(460.15)

*Argitaraldi elektronikoa*

Argitalpenaren urtea eta lekua: 2020, Bilbo

Argitaratzailea: Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua

Diseinua eta maketazioa: Ikuspegi – Inmigrazioaren Euskal Behatokia

Dokumentazioa: Antonio Gómez, Ikuspegi – Inmigrazioaren Euskal Behatokia

Itzulpena: Bakun Itzulpen eta Argitalpen Zerbitzuak, S.L.

Azaleko argazkia: Orlando Imperatore, used under CC BY-NC-SA 2.0 / Cropped from original

ISBN: 978-84-1319-269-7



# AURKIBIDEA

<b>1. Sarrera</b> .....	<b>5</b>
<b>2. Helburuak</b> .....	<b>7</b>
<b>3. Bibliografiari buruzko iruzkina</b> .....	<b>9</b>
<b>4. Metodologia eta datuak</b> .....	<b>11</b>
<b>5. Azterketa</b> .....	<b>17</b>
5.1. EAEko atzerritar jatorriko biztanleen bilakaera demografikoa eta ekonomikoa .....	17
5.2. Kontsumoaren bidezko dinamismo ekonomikoa: atzerritar jatorriko pertsonen kontsumoak EAEko BPGd-n duen eragina .....	22
5.3. EAEko atzerritar jatorriko pertsonen egotz dakiekeen ongizate-sistema publikoen gastua .....	24
5.4. Ekonomiari egindako ekarpenaren eta ongizate-sistemen onuradun izateagatik egotz dakiekeen gastuaren arteko erlazioa .....	28
<b>6. Ondorioak</b> .....	<b>31</b>
<b>7. Bibliografia</b> .....	<b>33</b>
Eranskinak .....	35



# 1

## Sarrera

Txosten hau Ikuspegi – Immigrazioaren Euskal Behatokiak Cultumetría aholkularitza-enpresarekin (inpaktu ekonomikoen neurketan eta analisi sozialetan espezializatuta dago enpresa hori) lankidetzan egindako azterketa bat da. Jorratu dugun lanak Ikuspegiren ikerketa-ildoetako batekin du zerikusia; hau da, immigrazioak euskal gizartean duen eraginarekin; zehazki, ekonomian eta zerga-sisteman duenari erreparatu diogu. Lehenbiziko lana (*Immigrazioaren eragin sozioekonomikoa EAE*n) 2016an argitaratu genuen. Orduko hartan, etorkinek krisialdi ekonomikoan egindako ekarpen fiskala neurtu zen.

Lan honetan, berriz, ez dugu aztertuko diru-kutxa publikoari egiten dioten ekarpena, baizik eta atzerritar jatorriko pertsonen kontsumoak EAEko ekonomiari egiten diona. Horretarako, kontsumo horrek BPGd-n duen eragina aztertuko dugu. Beste alde batetik, ongizate-sistemen (etxebizitza, gizarte-prestazioak, osasuna eta hezkuntza) onuradun izateagatik atzerritarrei egotz dakiekeen gastua ere aztertuko dugu. Azterketaren helburua funtsezko bi alderdi horiek aurrez aurre jartzea da, immigrazioak zenbat jasotzen duen eta zer ekarpen egiten duen ulertzeko, alderaketa hori garrantzitsua baita biztanleek migrazio-fenomenoarekiko dituzten jarreretan eta aurreiritzietan. Izan ere, Ikuspegiren 2019ko Barometroaren arabera, euskal gizartearen % 53,3k uste du atzerriko biztanleek gehiegizko onura jasotzen dutela gizarte-babeserako sistematik, eta % 33,6k uste du jasotzen dutena baino gutxiago ordaintzen dutela zergetan.

Testuinguru horretan, lan honen helburu nagusia da atzerriko jatorria duten biztanleek EAEko BPGd-ri zer ekarpen egiten dioten objektiboki, zientifikoki eta datu ofizialetan oinarrituta aztertzea, ekonomiari egindako ekarpenen alderdia eta Administrazioetik jasotzen dutena alderatuz. Emaizari esker, atzerriko biztanleek egindako ekarpen ekonomikoa jasotzen dutena baino handiagoa den edo ez jakin ahal izango dugu, eta hori, ikuspegi fiskala edo zerga-ikuspegia ez den batetik.

Kasu honetan, azterketak atzerritar jatorriko biztanleen eguneroko kontsumo pribatuak EAeko BPGd-ren bidez duen eraginaren kalkulua egingo du; zehazki, 2018. urteko kontsumoan izan zuen ekarpena.

Horiek horrela, azterketa honek ateratako ondorio nagusia hau da: Euskadin bizi den atzerritar jatorriko biztanleriak % 2,06ko ekarpena egin zion kontsumoaren bidez EAeko 2018ko BPGd-ri, eta ongizate-sistemen onuradun izateagatik egotz dakiekeen gastuaren eta egindako kontsumoaren arteko aldea 818.652.665 milioi eurokoa izan zen. Horrenbestez, egiaztatuta geratu da Administrazioak ongizate-sisteman egindako gastua txikiagoa dela atzerritar jatorriko pertsonen EAEn egiten duten kontsumoari dagokion ekarpena baino.

# 2

## Helburuak

Txosten honen helburu nagusia atzerritar jatorriko biztanleek EAEko ekonomia-dinamismoari zer ekarpen egiten dioten zehaztea da. Horretarako, atzerritar jatorriko pertsonen familien kontsumoak EAEko BPGd-n duen eragina aztertuko dugu. Helburu horren asmoa, berriz, atzerritar jatorrikoen kolektiboak aberastasun ekonomikoan zer-nolako garrantzia edo eragina duen kuantifikatzea da.

Azterketaren bigarren helburua alderaketa bat egitea da: hain zuzen, atzerritar jatorriko pertsonen kontsumoak EAEko ekonomian duen eragina konparatu nahi dugu pertsona horiei EAEko ongizate-sistemaren (etxebizitza, gizarte-politikak, osasuna eta hezkuntza) onuradun izateagatik egotz dakiekeen gastuarekin. Helburu horren asmoa, bestalde, atzerritar jatorriko familiek egiten duten kontsumoa eta administrazio publikoetatik jasotzen dutena diru kopurutan alderatzea da.





# 3

## Bibliografiari buruzko iruzkina

Inpaktu ekonomikoaren azterketa ikuspegi askotatik egin daiteke, eta txosten hau BPGd-ren adiera klasikoan oinarrituko da; hau da, kontsumoa, inbertsioa, gastua eta esportazio garbiak aztertzen dituen hartan. Asmoa, beraz, kalkulu sendoa egitea izan da, azterketa kuantitatibo horiek izan ohi dituzten mugen barruan. Beste era batera esanda, atzerritar jatorriko biztanleen ekonomia-jarduera BPGd-ren zer ehuneko den kalkulatzeko asmoa izan dugu.

Ez dira elkarren aurkakotzat hartu behar ekonomia-jarduera, herrialde baten garapena eta atzerritar jatorriko biztanleen fluxua. Izan ere, argitaratuta dauden ikerketen arabera, ekonomia-jardueraren hazkundeak lotura zuzena du lurralde baten demografia-bilakaerarekin eta migrazio-fluxuekin (Zurita et al., 2017). Azken argitalpen horrek eta antzeko beste batzuek, esaterako, onartutzat ematen dute migrazio-prozesuak soldata duineko enplegua bilatzeko gertatzen direla, eta ez gerren edo antzeko arrazoien ondorioz; horretarako, Trantsizio Demografikoaren teorian oinarritzen dira (Notestein, 1953; Arriola et al., 2008). Bestalde, teoria horren arabera, gaur egungo sistemaren ezaugarri nagusiak haurren heriotza-tasa ez-esanguratsua eta bizialdien iraupenaren luzapena dira, eta horrek pentsioen mendekotasun eta hazkunde handiagoak dakartza berekin (Herce, 2017). Alabaina, txosten honetan ez dugu alderdi hori jorratuko.

Asko dira migrazio-*booma* eta *boom* horrek herrialde baten demografiarekin eta ekonomiarekin duen zerikusia aztertzen duten ikerketak (Elias, 2012). Eragin hori aztertzeko, ikerketa-lan batzuek honako aldagai hauek hartu dituzte esplikatzailetzat: lan egiteko adinean dagoen biztanleriaren hazkunde-tasa; guztizko biztanleriaren hazkunde-tasa; aurrezki-tasa, eta hezkuntza edo prestakuntza-maila. Aurrekoarekin oso lotuta, soldatei dagokienez, ukaezina da atzerritar jatorriko biztanleak kontratuak lortzeko aukera handiena ematen dieten merkatuetara joaten direla; hau da, esku-lan gehien eskatzen duten haietara (Elias, 2012).

Euskal Autonomia Erkidegoan sortzen den aberastasunarekin zerikusia duten elementuen artean, nabarmentzeko modukoa da atzerritar jatorriko biztanleen ekonomia-jarduera (Arriola et al., 2008). Jarduera horren dinamismoak garrantzi handia du ekonomiaren balio-kate zuzenean, zeharkakoan eta induzituan. Horrenbestez, eskuragarri dagoen bibliografia erreferentziatzen hartu, eta ekarpenak egiteko zenbait biderekin zerikusia duten metodologia eta interpretazio ugariak aztertu ditugu, hala nola bide ekonomikoak (Aparicio eta Portes, 2014), fiskalak (Fullaondo et al., 2016), eta lurraldeekin (De Arce, 2010), hezkuntzarekin (Aja et al., 2000) eta beste diru-ikuspegi batzuekin (Oyarzun, 2008) lotutakoak. Azterketa horretatik ondorioztatu dugunez, metodologia horiek guztiak balioesteko modukoak eta zuhurrak dira emaitzak aztertzeko orduan. Lan honek atzerritar jatorriko pertsonen eskari agregatuaren bi aldagai aztertzen ditu, batez ere, hala nola kontsumoa eta gastua (inbertsioak eta esportazio gordinak ez dira esanguratsutzat hartzen), eta atzerritar jatorriko pertsonen kontsumoaren eragin ekonomikoa nabarmendu nahi du.

Alde horretatik, eskari agregatuaren gaineko inpaktuari buruzko ikerketek immigrazioak soldatetan eta produktibitatean izandako eraginak aztertu dituzte (González, 2002), eta ez kontsumoan izandakoa. Aurrekoan sakontzeko, makroekonomiari dagokionez, eragin orokorra errenta agregatuen (BPGd) eta per capita errenten hazkundean gertatzen da. Immigrazioak eskaintza eta eskari agregatuan eraginda bultzatzen du aldagai horien hazkundea, biak igoarazten baititu; dena dela, handiagoa da BPGd-n duen eragina per capita errentan duena baino (Oyarzun, 2008). Hortaz, azterketa honek BPGd-ri erreparatuko dio. Azken finean, ekonomia baten produkzioaren eta errentaren eragileen azterketa tradizional batek iradokitzen duenez, eskari agregatua da kontuan izan beharreko aldagaia baliabide produktiboak guztiz erabiltzen ez diren egoera batean.

# 4

## Metodologia eta datuak

Lan hau egiteko erabilitako estrategia metodologikoan —BPGd-ren adiera klasikoan oinarritua—, estatistika-datu sekundarioen bitartez egin dira kalkuluak eta egiaztapenak; datu horiek, bestalde, dagokion erakunde ofizialek emandakoak dira<sup>1</sup>. Jakinik BPGd-ren definizio bakarra ez dagoela, atzerritar jatorriko biztanleek EAERI gastuaren edo eskaintzaren aldetik zer balio ekonomiko ekartzen dioten aztertzea hautatu dugu. Hau da metodo hori aukeratu izanaren arrazoi bat: balio erantsi gordinaren metodoak berekin dakartzan bikoiztasunak saihestea eta errenten teknikaren ordezeko bat bilatzea; izan ere, informazio horren iturri sekundarioak ez ditugunez, kalkulatzeko metodo hori erabili izana justifikatzeko beste arrazoi bat ere: herrialde baten ekonomia-jarduera aztertzen denean, azterketari hiru ikuspegitatik erreparatzen zaio (produkzioa, errentaren banaketa eta kontsumoa). Beraz, hau da egin beharreko galdera garrantzitsua: zer ekarpen egiten diote etorkinek ekonomiako produkzioaren, errenta-sorkuntzaren eta eskari agregatuaren prozesuari? Azterketa teoriko eta enpiriko gehienek zerga-inpaktua (Fullaondo et al., 2016) eta lan-merkatua (Borjas, 1999) nabarmendu dituzte; ikerketa horien emaitzak, dena den, eztabaidagaiaren ikuspegi bat baino ez dira, eta ikuspuntu hori garrantzitsua izanagatik, partziala ere bada (Alacanteko Immigrazioaren Behatokia, 2005). Zehazki, EAERI ekonomian izandako inpaktuari buruzko ikerketek ez dute sakondu atzerritar jatorriko pertsonen lurralde horretan egiten duten eguneroko kontsumo pribatuaren eraginean eta eragin horrek BPGd-n dituen ondorioetan. EUSTATEk familia bakoitzak batez beste kontsumitzen duenaren analisia egin du, baina ikerketa honetan 2018ko Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkesta (PGDI) aztertzea erabaki dugu; hala, alderatu egin da kolektibo

---

<sup>1</sup>Informazio-azterketa sekundariotzat hartzen da zenbait datu primarioi buruzko geroko azterketa oro, datu horiei buruzko interpretazio eta ondorio osagarriak edo beste modu batean adieraziak ematen dituenak.

horrek egunerokoan bizi-beharrizanak asetzeko egiten duen batez besteko gastuaren kalkulua euskal ongizate-sistemari eginarazten dionarekin. Erabaki hori Apariciok (2002) egindako ikerketan oinarritzen da: ikertzaile horrek azpimarratzen duenez, ez da nahikoa Espainiako atzerritar jatorriko pertsonekin lotutako zergengatiko diru-sarreraren eta gastuen arteko balantzea egitea, eta sektore pribatuan kolektibo horrek egiten duen kontsumoaren eraginera hurbiltzen da. Ikerketa Madrileko etorkin batzuei egindako galdetegi baten bidez egin zen.

Hala, Arriolak eta beste batzuek (Arriola et al., 2006) egindako kalkuluetan oinarrituta, biztanleria etorkinak EAeko barne-produktu gordinari (BPGd) eragindako dinamismo ekonomikoa kalkulatu dugu.

Laburbilduz, gastuarengatiko edo eskariarengatiko BPGd-k herrialde bateko produkzioa adierazten du, eta, produkzioa bezala, eragile ekonomikoaren artean banatzen da. Gure asmoa da atzerritar jatorriko kolektiboak kontsumoaren banaketan egiten duen ekarpena eta Administrazioaren gastuan kolektibo horri banatutakoa bereiztea.

Azkenik, lurraldearen egitura ekonomikoa ulertzeko eta pertsona migrante bakoitzaren jarduerak zer ondorio dituen jabetzeko, lan honen atarikoak modu globalean egin da, alderdi orokorrenetatik zehatzenetara. Hau da, EAeko zenbait argazki demografiko, sozial eta ekonomiko hartu dira, eta horietan fokua jarrita, kalkulu xeheagoetara jo dugu. Horretarako, lehenik eta behin EAeko gizartearen egitura ulertu behar da, bai alderdi demografikotik, bai alderdi ekonomikotik, gero migrazioaren ezaugarriak eta hark izango dituen ondorioak ulertzeko.

Estrategia metodologiko hori abiapuntu hartuta, txosten hau hiru azterketatan oinarritzen da:

- Migrazio-fenomenoak gastuaren ikuspegitik EAeko BPGd-n duen eragina kalkulatzeko (kontsumoa eta ongizate-politiketan egindako gastua).
- Atzerritar jatorriko biztanleen kontsumoak EAeko BPGd-n duen eragina kalkulatzeko.
- Atzerriko pertsonen etxebizitza-politika publikoetan, osasunean, hezkuntzan, prestazio ekonomikoetan eta gizarte zerbitzuetan egozten zaien gastua kalkulatzeko.

Beste alde batetik, datuen eskuragarritasuna dela medio, kasu batzuetan kalkuluak atzerritar jatorria duten biztanleak erreferentziatzen hartuta egin dira, eta beste batzuetan, berriz, atzerritar nazionalitatea duten biztanleak kontuan hartuta.

Hau da erabili dugun BPGd-ren formula, migrazio-fenomenoak gastuaren ikuspegitik EAEko BPGd-n duen eragina kalkulatzeko:

$BPGd = K + I + G + (X - I)$ , non:

- K: Kontsumoa. Familiek irabaziak ateratzeko edo etekinak sortzeko asmorik gabe egindako gastuak.
- I: Inbertsioa. Pertsonak irabaziak ateratzeko eta/edo etekinak sortzeko asmoz egindako gastuak. Kopuru hori esanguratsua ez dela erabaki da, eta ez da sartu kalkuluan.
- G: Gastu publikoa. Administrazio Publikoak dituen gastu guztien batura.
- (X-I): Merkataritza-balantzaren saldoa. Esportazioak ken inportazioak dira. Inbertsioaren kasuan bezala, kopuru hori esanguratsua ez dela erabaki da, eta ez da sartu kalkuluan.

Kalkulua bi kontzeptu hauetan oinarritzen da:

- EAEko administrazio-sistemak atzerritar kolektiboari etxebizitzan, hezkuntzan, osasunean eta gizarte-prestazioetan egiten dion ekarpenaren kalkulua.
- Atzerritar jatorriko familiek ondasunetan eta zerbitzutan egiten duten ekarpena eta kontsumoa, bai eta haien aurrezki-ahalmena eta beren enpresak egituratuz ekonomiari egiten dioten ekarpena ere.

Atzerritar jatorriko biztanleen kontsumoak EAEko BPGd-n duen eragina ikusteko, atzerritar jatorriko pertsonen kontsumoa 2018ko EAEko BPGd-ren zer ehuneko den kalkulatu dugu.

Azkenik, Eusko Jaurlaritzako sail bakoitzeko aurrekontu-partidetan aplikatutako egozpen-koefizienteetan oinarrituta egin dira, nagusiki, EAEko ongizate-sistemen onuradun izateagatik egotzitako gastuen kalkuluak. Egozpen-koefizienteak zerbitzu bakoitzean atzerriko biztanleek duten eraginean oinarritzen dira.

## 1. koadroa. Formulak eta kontsultatutako iturri estatistikoak

Partida ekonomikoa	Kalkulua	Kontsultatutako iturriak	Oharrik
Etxebizitza	$\sum_{E^*G}^{EP} \left( \text{Vivesaren espedienteak} + \text{Alokabideren espedienteak} \right) \times AJP^{2018}$	Alokabide / VISESA / Etxebizitzaren Behatokia	Onuradun izan diren AJBen % 98 alokairu bidezkoak dira.
Gizarte-prestazioak	$\frac{\sum \text{EspAJPX}(\text{DSBE} + \text{EPO} + \text{GB})^{2018} + \text{GZ}^{2018}}{\sum \text{EspguztiraX}(\text{DSBE} + \text{EPO} + \text{GB})^{2018} + \text{GZ}^{2018}}$	Lanbide / Beste erref. batzuk	Prestazioen batezbestekoa x, hilekoa da.
Osasuna	$\sum \text{Gastua Adin Tarteko}^{2018} / \text{Osasun-aurrekontua}^{2018}$	Eusko Jaurlaritza / Beste erref. batzuk	Egotzitako gastuaren zatidura erabili da (ikus erref.).
Hezkuntza	$\sum_{G^*I}^{2018} \times \frac{AJP \text{ kop. (Publikoa} + \text{itunpekoa)}}{AP}$	Eusko Jaurlaritza / EUSTAT	Ez dira kontuan hartu unibertsitate-gastuekin lotutako datuak.
Familia-kontsumoa	$\sum_{fbk}^{2018} \checkmark AJP^{\text{familia-unitateak}}$	Pobreziaren eta desberdintasun sozialen inkesta / EUSTAT	Atzerritarren familia-unitateen kopurua eta hileko batez besteko gastua kalkulatu dira.

Iturria: Txostengileek egina

Bestalde, ez da txosten honen xede izan biztanleria-segmentu horrek bere soldaten eta irabazien, kontsumoaren, enpresa-jardueraren edota bestelako zerga mota batzuen arabera ordaindu behar izaten dituen zerga zuzenak eta zeharkakoak jasotzea. BPGd-ren formula tradizional horrek (ikus I. eranskina) ez du hori kontuan hartzen. Gainera, zenbait datu-iturri sekundariotatik hartutako datuak normalizatzeko, azterketa transbertsala egin da; hau da, 2018. urtea hartu da erreferentziatzat, lehen aipatu dugun bezala. Nabarmendu dezagun, halaber, kalkulu sendoa eta kontserbadorea egite aldera, ikuspegi horrek ez duela ezkutuko ekonomia kontuan hartzen. Estatu-mailako edo beste esparru geografiko bateko azterketa konparatiboa egitea ere ez da izan ikerketa honen xede.


Zehazki, oinarri hauek dituzte proiektu hau gauzatzeko ekintzek:

#### **Informazio-eskaera eta iturri sekundarioak**

Hurrengo urratsa BPGd-ren parametroei (hau da, kontsumoa, inbertsioa, gastua eta esportazio garbiak) buruzko informazioa lortzeko estrategia bat diseinatzea izan da, eta estrategia horren bideragarritasuna existitzen diren datu-iturri sekundario ofizialen bidez gauzatea.

Hala, dagozkion erakunde ofizialek jasotako informazio sekundarioaren biltegiak aztertu ditugu, 2. eranskinean zerrendatu dugun bezala; ikerketan honetan erabilitako informazio gehienak jatorri hori du.

### 1. irudia. Iturri sekundarioen bidez informazioa lortzeko prozesua




*Iturria: Txostengileek egin*

### **Datuen elikadura**

Azkenean, aurreko prozesuaren eta galbahearen ostean, lortu diren datu-baseak deskargatu, atera, taula bihurtu, normalizatu, garbitu, sailkatu, aztertu eta interpretatu egin dira. Ondoren, interes ekonomikotzat jotzen den informazioa elikatzen duten datu egokiak eta garrantzizkoak lortu ditugu.

### 2. irudia. Informazioa aztertzekeo prozesua



*Iturria: Txostengileek egin*






# 5

## Azterketa

### EAEko atzerritar jatorriko biztanleen bilakaera demografikoa eta ekonomikoa

Trantsizio Demografikoaren kontzeptua oinarri hartu eta dokumentuari ildo nagusi bat emate aldera, testua EAEko migrazioaren egoera zein bilakaera demografikoa eta ekonomikoa testuinguruan jarriz hasten da, migrazio-fenomenoa euskal gizarte-egituran sartzearen eragina ulertzeko. Onartutzat ematen da EAEko migrazio-fenomenoaren eragina zenbait mailatan gertatzen dela; txosten honetan, zehazki, eragin ekonomikoa aztertuko dugu.


1. grafikoa. EAEko biztanleriaren bilakaera, 2001-2018



Iturria: EIN. Txostengileek egina.

Aurreko grafikoan ikusten denez, EAEko biztanleria, Estatistikaren Institutu Nazionalaren (EIN) datuen arabera, gutxitu egin da azken urteetan, jaiotza-tasa txikiaren eta biztanleria gehiegi zahartzearen ondorioz. Honela interpreta daiteke lehen datu hori: etorkinen kolektiboak biztanleriaren beherako joera orokor hori berdintzeko balio dezake, laneko produktibitateari dagokionez.


2. grafikoa. EAEko jaiotza kopuruaren bilakaera urtez urte



Iturria: Eustat. Txostengileek egina.

Gainera, goiko irudiko EAEko jaiotza-tasaren bilakaeran ikusten denez, azken urteetan areagotu egin da beherako joera eta baieztatu egin da biztanleria-tasaren beherakada.


3. grafikoa. EAEko biztanleriaren bilakaera (%) adin-tarteka, 2001-2018



Iturria: Eustat. Txostengileek egina.

Gorago adierazi dugun bezala, *boom* demografikoaren ondorioa bi faktorekin lotzen da, batez ere: jaiotza-tasaren beherakada eta biztanleria zahartzea. Europa osoan bezala, fenomeno hori beheko gora jartzen ari da biztanleria-piramidea, eta, 3. grafikoan ikusten den moduan, beherakada are nabarmenagoa da 20 urtetik 64 urtera bitarteko biztanleen artean (hain zuzen, adin-tarte horretako biztanleak izan ohi dira produktiboak).


4. grafikoa. BPGd-ren bilakaera EAEn



Iturria: Eustat. Txostengileek egina.

Alderdi ekonomikoari erreparatzen badiogu, EAeko BPGd-ren bilakaeran ere izan dira 1995. urtetik aurrera krisi ekonomikoak eragindako gorabeherak, baina azken bosturtekoan (hau da, 2013-2018 tartean) goranzkoa da joera. Zehazki, hazkunde-ratioa % 18koa da. Hazkunde hori ezin da ulertu biztanleriaren bilakaerarik gabe, hala biztanleria orokorrarena, nola migrantearena. Abiapuntuko hipotesi hori (hau da, atzerritar jatorriko biztanleen bilakaeraren eta haien inpaktu demografikoaren eragina EAeko BPGd-n) funtsezkoa da kolektibo horren ekonomia-jarduera ulertzeko. 5. eta 6. grafikoetan, ekonomia-jardueraren hazkunde eta beherakada horiek ulertzeko bi modu erakusten dira.


5. grafikoa. EAeko BPGd-ren hazkundera urtez urte



Iturria: Eustat. Txostengileek egina.

Horrez gain, ikusten da BPGd-ren gorako joerek (bai merkatuko prezioetakoak, bai per kapitak) ezaugarri bera dutela; horrenbestez, areagotu egiten da ikerketa honetan EAEko alderdi demografikoaren eta aldaketa ekonomikoaren arteko erlazioan sakontzeko interesa.

6. grafikoa. EAEko per capita BPGd-ren bilakaera



Iturria: Eustat. Txostengileek egina.

Per capita BPGd kalkulatzeko, lurralde bateko errenta nazionala zati lurralde horretako guztizko biztanleria egiten da. Leku horretako biztanleen aberastasunari edo bizi-mailari buruzko informazioa ematen du datu horrek, eta beste leku batzuetakoekin alderatzeko aukera ere bai. Kasu honetan, mendeko aldagai gisa erabiltzen da, funtsezko aldagaia baita.

Per capita BPGd honela deskonposa daiteke:

$$\text{Per capita BPGd} = \text{Laneko produktibitatea} \times \text{Enplegu Tasa} \times \text{Faktore demografikoa}$$


$$\text{Per capita BPGd} = \text{BPGd} \div \text{Biztanleria}$$

$$\text{Laneko produktibitatea} = \text{BPGd} \div \text{Biztanleria landuna}$$

$$\text{Enplegu Tasa} = \text{Biztanleria landuna} \div \text{Lan egiteko adinean dagoen biztanleria}$$

$$\text{Faktore demografikoa} = \text{Lan egiteko adinean dagoen biztanleria} \div \text{Biztanleria}$$


7. grafikoa. EAEko produktibitatearen hazkundea



Iturria: Eustat. Txostengileek egina.

Azaldu diren teorien arabera, zenbat eta txikiagoa izan biztanleria aktiboaren eta guztizko biztanleriaren arteko aldea, BPGd-ren hazkundea azkartzeko joera areagotu egingo da. Hala, adierazpen hori frogatzeko, egoki iritzi zaio biztanle etorkinek produktibitatean duten eragina kalkulatzeko.


8. grafikoa. EAEn erroldatutako atzeritar jatorriko pertsonen kopuruaren bilakaera



Iturria: Ikuspegi. Txostengileek egina.

7. eta 8. grafikoeetan, EAEn bizi den atzeritar jatorriko biztanleriak azken urteetan izandako goranzko joera lineala ikusten da. Joera hori eta BPGd-ren igoera paralelotzat jo daitezke, bai ohiko prezioei dagokienez, bai per capita BPGd-ri dagokionez. Biztanleria orokorra ez bezala, EAEko atzeritar jatorriko biztanleria hazi egin da azken hogeitun urteetan, tarteka beherakadak ere izan dituen arren.

9. grafikoa. EAeko atzerritar jatorriko biztanleriaren ehunekoaren bilakaera guztizko biztanleriarekiko



Iturria: EUSTAT. Biztanleria aktiboaren udal-estatistika. Txostengileek egina.

8. grafikoa osatzeko, aurrekoan ikusten den bezala, EAeko atzerritar jatorriko biztanleriaren bilakaera demografikoak gorako joerari eutsi dio termino erlatiboetan, egia bada ere 2011tik 2014ra egonkortu egin zela eta handik 2018ra berriro hazi zela. Atzerritar jatorrikoen kopurua ia guztizko biztanleriaren % 10 da. Beraz, datu ona da, eta EAEn gerta daitezkeen beharakada demografikoak leuntzeaz gain, esku-lana osatzen du.

## Kontsumoaren bidezko dinamismo ekonomikoa: atzerritar jatorriko pertsonen kontsumoak EAeko BPGd-n duen eragina

Atal honetan, kontsumoaren kalkulua bi datu-iturri sekundariotan oinarritzen da: lehenik, EAeko familien kontsumoaren guztizko gastua milaka eurotan kalkulatu dugu, EUSTATen Euskadiko Familia Gastuaren Inkestan oinarrituta; eta bigarrenik, 2018ko Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkestan (PGDI, hemendik aurrera) oinarrituta kalkulatu dugu gastu hori. Kontsumoari dagokionez, nabarmen utzi da bizi-beharrizanak asetzeko egindakoa dela. Partida horretan honako hauek sartzen dira, Euskadiko Familia Gastuaren Inkestatik hartutako BPGd-ren definizioaren arabera:

- Janariak eta edari ez-alkoholikoak.
- Edari alkoholikoak eta tabakoa.
- Jantziak eta oinetakoak.
- Etxebizitza, ura, argindarra...

- Altzariak / etxeko tresnak.
- Osasuna.
- Garraioak.
- Komunikazioak.
- Aisialdia eta kultura.
- Irakaskuntza.
- Hotelak eta jatetxeak.
- Beste ondasun eta zerbitzu batzuk.

Hala, dagokion erantzunean (ikus eranskina), aztertu egin dugu atzerritar jatorriko kolektiboko familiek eguneroko jardunean hileroko gastatzen dutela diotena.

### 1. taula. EAEko atzerritar jatorriko pertsonen kontsumoaren guztizko kopurua. 2018<sup>2</sup>

Familia bakoitzak hileroko kontsumoan gastatutakoa	Bizikidetzaren kopurua	Urteko guztizko kontsumoa (x 12 hilabete)
1.565 €	81.219	1.525.292.820 €

*Iturria: Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkesta. Txostengileek egin.*

Kalkuluen arabera, familia atzerritarretan, batez beste, hileko gastua 1.565 eurokoa da. Datu hori atzerritar jatorriko familien edo etxeen kopuruarekin lotu beharko genuke, eta EUSTATen PGDIren datuen arabera, 81.219 dira halako bizikidetzaren unitateak (atzerritar nazionalitatea edo nazionalitate bikoitza dutenak). Beraz, horiek egiten duten gastua 1.525.292.820 eurokoa da.

### 2. taula. Atzerritar jatorriko pertsonen kontsumoak EAEko BPGd-n duen eragina. 2018

Urteko guztizko kontsumoa	2018ko EAEko BPGd	BPGd-ren %
1.525.292.820 €	74.041.000.000 €	% 2,06

*Iturria: Pobreziari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkesta eta Eustat. Txostengileek egin.*

Kontuan izanda EAEko 2018ko BPGd 74.041.000.000 € dela, atzerritar jatorrikoen kontsumoaren datua guztizko ekonomiaren zer ehuneko den kalkulatu dugu, eta % 2,06 dela atera da.

<sup>2</sup>Batezbestekoaren sendotasuna egiaztatzen, mediana eta desbideratze tipikoa kalkulatu ditugu; ondorioztatu dugu parametro hori adierazgarria dela eta muturrek ez diotela eragiten.

## EAEko atzerritar jatorriko pertsonen egotz dakiekeen ongizate-sistema publikoen gastua

Puntu honetan, ongizate-sistemen (etxebizitza, osasuna, hezkuntza eta gizarte-prestazioak eta -zerbitzuak) onuradun izateagatik atzerritarrei egotz dakiekeen gastua aztertu dugu. Metodologian adierazi dugun bezala, datuen eskuragarritasuna dela medio, kasu batzuetan kalkuluak atzerritar jatorria duten biztanleak erreferentziatzen hartuta egin dira, eta beste batzuetan, atzerritar nazionalitatea duten biztanleak kontuan hartuz.

### Etxebizitza

Etxebizitzan egozten zaien gastua kalkulatzeko, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailak etxebizitza publikoak alokairuan eta jabetzan eskuratzeko egindako gastuak aztertu ditugu, bai eta etxebizitza-politika kudeatzeko sail horrek egindako beste gastu mota batzuk ere.

Etxebizitzaren Euskal Behatokiaren (2017) arabera, atzerritar nazionalitateko biztanleek 2017an esleitu ziren babestutako etxebizitzaren % 25 jaso zuten. Etxebizitza-erregimenaren arabera, esleitutako alokairuko etxebizitzaren % 31,1 jaso zuten, eta erositako etxebizitzaren % 1,3. Gastu-egozpenaren koefizienteak ehuneko horietan oinarritzen dira.

Egozten zaien gastua kalkulatzeko, hiru aurrekontu-partidatan oinarritu gara. Alokairuaren kasuan, Alokabideren aurrekontuan (etxebizitzaren alokairu publikoaren politikaz arduratzen den Eusko Jaurlaritzako sozietate publikoa da Alokabide); erosketen kasuan, Visaren aurrekontuan (hau da, babes publikoko etxebizitza eta hiri birgaitzea/berritzea sustatzeko sozietate publikoa, Eusko Jaurlaritzaren mende dagoena); eta etxebizitza-politika kudeatzeko gastuen kasuan, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Saileko funtzionamendu- eta pertsonal-gastuen aurrekontuan.

**3. taula. EAEko atzerritar nazionalitateko biztanleriari etxebizitza-politika publikoan egozten zaion gastua. 2018**

	Aurrekontua	Egozpen-koefizientea	Egozpena
Alokabide	84.000.000€	0,311	26.124.000€
Visa	117.500.000€	0,0131	1.539.250€
Etxebizitza Saila (funtzionamendu- eta pertsonal-gastuak)	18.606.981€	0,251	4.670.352€
		<b>Guztira</b>	<b>32.333.600€</b>

*Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila, eta Etxebizitzaren Euskal Behatokia. Txostengileek egina.*



Egozpen-koefizientea aurrekontu-partida bakoitzari aplikatzen badiogu, 32.333.600 eurokoa da EAEko atzerritar nazionalitateko biztanleriari etxebizitza publikoan 2018an egotz dakiokeen gastua.

## Hezkuntza

Hezkuntzan egozten zaien gastua kalkulatzeko, unibertitatez kanpoko araubide orokorreko irakaskuntzetako mailetan matrikulatutako atzerritar nazionalitateko ikasleen ehunekoa aztertu dugu, sare mota bereiziz (publikoa-privatua). Hezkuntza Sailak hezkuntza-garapenerako dituen beste programa batzuei ere erreparatu diegu, bai eta sailaren funtzionamendu-gastuei ere.

Matrikulatutako atzerritar nazionalitateko ikasleen ehunekoa aldatu egiten da hezkuntza-mailaren eta sare motaren arabera. Sare publikoan, atzerritar nazionalitateko ikasleak % 11 dira Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan, eta % 8 Bigarren Hezkuntzan eta Lanbide Heziketan; sare pribatuan, berriz, % 4 dira Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan, eta % 6 Bigarren Hezkuntzan eta Lanbide Heziketan. Pertsona Helduen Hezkuntzari dagokionez, atzerritar nazionalitatekoen garrantzia askoz handiagoa da, eta matrikulazioaren % 48ra iristen dira. Azkenik, hezkuntza-maila horiek guztiak kontuan hartuz, atzerritar nazionalitateko ikasleen ehunekoa, oro har, % 9 da. Egozpen-koefizienteak ehuneko horietan oinarritzen dira.

4. taula. EAEko atzerritar nazionalitateko biztanleriari hezkuntzan egozten zaion gastua. 2018

	Aurrekontua		Egozpen-koefizientea		Egozpena	
	Publikoa	Pribatua	Publikoa	Pribatua	Publikoa	Pribatua
<b>Araubide orokorreko irakaskuntza</b>						
Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza	599.498.835	328.187.113	0,11	0,04	66.794.043	12.701.868
Bigarren Hezkuntza eta Lanbide Heziketa	632.216.423	327.238.718	0,08	0,06	52.039.828	20.697.284
Helduen Hezkuntza	35.482.237		0,48		17.092.285	
Funtzionamendua eta beste programa batzuk	374.672.918		0,09		33.720.563	
			<b>Guztira</b>		<b>203.045.871</b>	

*Iturria: Hezkuntza Saila eta Eustat. Txostengileek egina.*

Atzerritar nazionalitateko biztanleriari egozten zaion gastua kalkulatzeko, honela egin dugu: alde batetik, hezkuntza-maila bakoitzeko aurrekontu-gastua sare motaren arabera banakatu dugu; bestetik, multzo batean sartu ditugu sailaren funtzionamendu-gastuak eta beste programa batzuen gastuak, hala nola hezkuntza-sustapenarena, hezkuntza-egiturarena eta -babesarena,

arabide bereziko irakaskuntzera, eta hezkuntza-berrikuntzarena eta irakasleen etengabeko prestakuntzarena.

Egozpen-koefizientea aurrekontu-partida bakoitzari aplikatzen badiogu, 203.045.871 eurokoa da unibertsitatez kanpoko arabide orokorreko hezkuntza-sisteman matrikulatutako EAeko atzerritar nazionalitateko biztanleriari 2018an egotz dakioken gastua.

## Osasuna

Osasunean egozten zaien gastua kalkulatzeko, Ahn, Alonso eta Hercek (2003) proposatutako metodologiari jarraitu diogu; metodologia horren arabera, osasun-gastua erabiltzaile bakoitzaren adinaren arabekoa da, eta biztanleria jakin baten osasun-gastuaren batezbestekoa biztanleria horren adin-egiturearekin lot daiteke. Alde horretatik, Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailak EAeko osasun-gastuaren adin-taldekako kalkulu bat argitaratu zuen Euskadiko Arreta Soziosanitarioaren Ildo Estrategikoak 2013-2016 dokumentuan. Gastuaren banaketa horretan oinarrituta, atzerritar nazionalitateko biztanleen osasun-gastuaren egozpen-koefizienteak definitu ditugu.

5. taula. EAeko atzerritar nazionalitateko biztanleriari osasunean egozten zaion gastua. 2018

Adin-tarteak	Atzerritarrek	Biztanleria, guztira	Egozpen-koefizientea	Kostu-koefizientea adin-tartearen arabera	Adin-tartearen kostua, €	Egozpena, €
0-4	9.983	93.900	0,106	0,043	155.566.824	16.539.122,5
5-11	9.169	150.529	0,061	0,026	93.587.466	5.700.585,8
12-17	8.034	121.668	0,066	0,017	61.174.729	4.039.499,1
18-34	52.919	352.124	0,150	0,098	354.781.316	53.318.355,1
35-44	38.365	341.771	0,112	0,095	344.122.906	38.629.009,7
45-54	19.939	349.468	0,057	0,117	422.538.330	24.108.049,3
55-64	8.932	305.527	0,029	0,157	566.124.976	16.550.512,0
65-69	1.750	128.831	0,014	0,089	320.202.256	4.349.527,3
70-74	947	115.074	0,008	0,092	331.369.524	2.727.001,2
75-79	549	80.555	0,007	0,115	415.952.380	2.834.806,7
80-84	339	77.392	0,004	0,088	317.197.669	1.389.420,2
85+	200	82.249	0,002	0,062	222.594.369	541.269,5
<b>Guztira</b>	<b>151.126</b>	<b>2.199.088</b>		<b>1,000</b>	<b>3.605.212.745</b>	<b>170.727.158</b>

*Iturria: Osasun Saila eta EIN. Txostengileek egina*

Ikusten denez, adin-tartearen arabeko osasun-gastuak alderantzizkatuta jarritako J bat adierazten du; horren arabera, pertsona baten bizi-zikloan, gastu handienak bizitzako lehen urteetan —jaio osteko eta haurtzaroko zerbitzuetako medikuntza espezializatuari dagozkionak dira— eta hirugarren adineko urteetan

egiten dira; azken horiek zahartzaroko zaintzei eta gaixotasun kardiobaskularren eta degeneratiboen maiztasun handiagoari dagozkienak dira.

Egozpen-koefizientea adin-tarte bakoitzaren gastuari aplikatzen baldin badiogu, 170.727.158 eurokoa da EAEko atzerritar nazionalitateko biztanleriari osasunean 2018an egotz dakioken gastua.

## Prestazio ekonomikoak eta gizarte-zerbitzuak

Prestazio ekonomikoetan eta gizarte-zerbitzuetan egozten zaien gastua kalkulatzeko, Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren (DSBE), Etxebizitzarako Prestazio Osagarriaren (EPO) eta EAEko gizarte-zerbitzuen onuradun diren atzerriko biztanleak aztertu ditugu. DSBE eta EPO dira pobrezia eta gizarte-desberdintasunak prebenitzeko eta egoera horiei aurre egiteko EAEko prestazio ekonomiko nagusiak. Eskubide subjektibotzat jotzen ditu prestazio horiek Diru-sarrerak Bermatzeko eta Gizarteratzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legeak (EHAA 250/2008), eta aurrekontu-partida garrantzitsua dute; prestazioaren onuradunen kopurua nola, hala aldatzen da partida hori ere. Eusko Jaurlaritzaren argitalpen baten arabera (Gizarte Zerbitzuen eta Gizarte Ekintzaren Estatistika-Gizarte Zerbitzuen Gastu Publikoa, 2014-2017), 2017an 480 milioi euro gastatu ziren, guztira, DSBEen eta EPOn.

Egozten zaien DSBEren gastua kalkulatzeko, atzerritar jatorriko pertsonen hileroko esleitu zaien prestazio kopurua kalkulatu dugu, hasteko, Lanbidek argitaratutako espediente kopuruan oinarrituta. Ondoren, prestazio bakoitzari batez besteko zenbateko bat egotzi diogu: 807,05 €, alegia. EPOri dagokionez ere, atzerritar jatorriko pertsonen hileroko esleitutako prestazio kopurua kalkulatu dugu eta prestazio bakoitzari batez besteko zenbateko bat egotzi diogu: 250 € hileko, alegia. Bi kasuetan, lortutako kopurua 12 hilabetez biderkatu dugu, egotzitako gastuaren emaitza lortzeko: 216.319.560 € DSBEen eta 52.221.000 € EPOn.

**6. taula. EAEko atzerritar jatorriko biztanleriari prestazio ekonomikoetan eta gizarte-zerbitzuetan egozten zaion gastua. 2018**

	Espedienteak	Batez besteko prestazioa hileko	Urteko egozpena
DSBE	22.324	807,5€	216.319.560 €
EPO	17.407	250€	52.221.000€
	Egindako gastua	Egozpen-koefizientea	Egozpena
Gizarte Zerbitzuen Egiturazko Gastua	199.956.034€	0,16	31.992.965€
		<b>Guztira</b>	<b>300.533.525€</b>

*Iturria: Lanbide, Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila. Txostengileek egina*

Gizarte-zerbitzuen kasuan, gastua egozteko metodoa egozpen-koefiziente bat aplikatzean oinarritzen da, aurreko kasuetan bezala. Eusko Jaurlaritzaren Gizarte Premiei buruzko Inkestaren arabera, atzerritar nazionalitateko biztanleak gizarte-zerbitzuen onuradunen % 16 dira. Ehuneko horretan oinarrituta kalkulatu dugu egozpen-koefizientea. Koefiziente hori gizarte-zerbitzuen egiturazko gastuari aplikatzen diogunean, egotzitako gastua 32 milioi ingurukoa da.

Laburbilduz, 2018an 300.533.525 eurokoa da EAeko atzerritarrei prestazio ekonomikoetan eta gizarte-zerbitzuetan egotz dakiekeen gastua.

## Ekonomiari egindako ekarpenaren eta ongizate-sistemen onuradun izateagatik egotz dakiekeen gastuaren arteko erlazioa

Behin atzerriko biztanleen kontsumoaren eta gastuaren kopuruak aztertuta, atal honetan bi kopuruen arteko erlazioa eta EAeko BPGd-n duten eragina (7. taula) ikusiko ditugu.

Aurreko puntuan ikusi dugun bezala, atzerritar jatorriko pertsonen kontsumoa 1.525.292.820 eurokoa izan zen 2018an. Kontsumo hori urte bereko EAeko BPGd-ren % 2,06 da. Ongizate-sistemen (etxebizitza, hezkuntza, osasuna eta gizarte-prestazioak eta -zerbitzuak) onuradun izateagatik egindako gastuaren kopuruari dagokionez, gastu-kontzeptu guztien baturaren ondoriozko gastu-egozpena 706.640.155 eurokoa izan zen. Kasu horretan, kolektibo horri BPGd-rekin lotuta egotz dakioken gastua barne-produktu gordinaren % 0,95 da.

Alde horretatik, bi kopuruen arteko alderaketak adierazten digunez, atzerritar jatorriko biztanleek kontsumoaren bidez ekonomiari egiten dioten ekarpen ekonomikoa handiagoa da ongizate-sistemen onuradun izateagatik jasotzen dutena baino; zehazki, 818.652.665 eurokoa<sup>3</sup> da aldea.

Azkenik, BPGd herrialde baten kontsumoaren eta gastuaren baturatzat hartzen badugu, atzerritar jatorriko pertsonekin lotutako bi parametro horien batura 2.231.932.975 € da, eta horrek BPGd-n % 3,01eko guztizko eragina dutela esan nahi du.

<sup>3</sup>Argi utzi behar da alde horretan bi dimentsio ekonomiko desberdin konparatzen ari garela; beraz, kopuru hori ez da hartu behar diru-kutxa publikoek jasotzen eta ematen dutenaren arteko kenduratzat. Kopuru horrek egiten duten kontsumo pribatuaren eta egozten zaien gastu publikoaren arteko aldea erakusten du kopurutan, besterik gabe.

**7. taula. EAEko atzerritar jatorriko pertsonen kontsumoaren guztizko kopurua. 2018<sup>4</sup>**

Kontsumoa	1.525.292.820 €
Gastu-egozpena	706.640.155 €
Kontsumoa + gastu-egozpena	2.231.932.975 €
EAEko BPGd	74.041.000.000€
Kontsumoaren eragina BPGd-n	% 2,06
Gastuaren eragina BPGd-n	% 0,95
Kontsumoaren eta gastu-egozpenaren eragina BPGd-n	% 3,01

*Iturria: Txostengileek egina*

Jarraian, kolektibo horren aurrezteko ahalmen txikia xehatuko dugu. Datu hori hileroko aurrezteko duten aukera urriaren bidez adieraziko da, eta kontsumo-tasa altuaren datua osatzeko balio du.

2018ko PGDIren datuetan oinarrituta, familien aurrezki-tasaren batezbestekoa eta mediana kalkulatu ditugu, eta koefiziente hori datu orokorrari aplikatu diogu. Ikusi da 133 euro aurrezten dituztela hileroko, batez beste; mediana, berriz, 0 da, eta horrek esan nahi du muturrek eragin handia dutela batezbestekoan, eta batezbesteko hori ez dela adierazgarria koefiziente sendo bat kalkulatzeko. Hala, azterketa kontserbadorea egitea aukeratu da, kolektibo horren aurrezteko ahalmen txikia laburtzeko.

<sup>4</sup>Batezbestekoa sendoa den ikusteko, mediana eta desbideratze tipikoa kalkulatu ditugu, eta ondorioztatu dugu parametro hori adierazgarria dela eta muturrek ez diotela eragiten.



# 6

## Ondorioak

Txosten hau bihelburutan oinarritu da: alde batetik, atzerritar jatorriko biztanleriak EAEko dinamismo ekonomikoari egiten dion ekarpena kuantifikatzea; bestetik, berriz, alderatzea atzerritar jatorriko pertsonen kontsumoak ekonomian eragiten duen inpaktua eta pertsona horiei EAEko ongizate-sistemen onuradun izateagatik egotz dakiekeen gastua. Azterketa 2018ko datuekin egin da; beraz, lortu diren emaitzek adierazten duten errealitatea testuinguru jakin batekoa da: 2008ko krisiaren ondorengo eta 2020ko COVID-19aren krisiaren aurreko susperraldia edo hazkunde ekonomikoa. Beste alde batetik, nabarmendu nahi dugu azterketa atzerritar jatorriko biztanleei buruzkoa izan dela, ahal den neurrian, baina, zenbait datu eskuragarri ez zeudenez, atzerritar nazionalitatea duten biztanleei buruzko datuak ere erabili ditugu. Gainera, azpimarratu dezagun ikerketa honen helburua ez dela izan ekonomia ezkutuak BPGd-n dituen eraginak kalkulatzeko. Izan ere, txostenean jaso den informazioa datu-iturri ofizialetan oinarritzen da, eta iturri horiek, jakina, ez dute horrelakorik adierazten.

Lehen helburuari dagokionez, 1.525 milioikoa izan zen 2018an atzerritar jatorriko biztanleek EAEko ekonomiari kontsumoaren bidez egindako ekarpena. BPGd-ra ekarrita, kontsumo hori urte horretako EAEko BPGd-ren % 2,06 izan zen. Datu horren garrantzia azpimarragarria da, kolektibo horrek sortzen duen kontsumoak arraste-eragina ekartzen baitio euskal ekonomiari. Hau da, bizi-beharrizanak asetzeko eguneroko gastuak berekin dakartza zenbait zerga (BEZa, batez ere), eta barne-kontsumoak dinamismoa bultzatzen du EAEn barnean. Esate baterako, saltzaile bati produktu bat erostean ordaintzen diogun euro bakoitzetik, 50 zentimo beste erosketa bat egiteko erabil ditzake saltzaile horrek, eta horrela gainerakoak.

Bigarren helburuari dagokionez, 2018an 706 milioi eurokoa izan zen atzerritar jatorriko biztanleei egotz dakiekeen gastua EAEko politika publikoen onuradun

izateagatik (etxebizitzan, hezkuntzan, osasunean, prestazio ekonomikoetan eta gizarte-zerbitzuetan). BPGd-ra ekarrita, kolektibo horri egotz dakiokeen kontsumoa eta gastua 2018ko BPGd-ren % 3,01 izan zen.

Zehazki, atzerritar jatorriko pertsonen laguntzeko Administrazioak gastatzen duenaren gehiena gizarte-prestazioetara bideratzen da, eta neurri apalagoan hezkuntzara, osasunera eta etxebizitzara, ordena horretan. Nabarmendu dezagun, bestalde, osasun-gastua adin-tarteen arabera dela —hau da, zenbat eta zaharrago, medikuari bisita gehiago—, eta kolektibo horretako gehienak gazteak direnez eta lan egiteko adinean daudenez, ez daukate osasun publikoaren hainbesteko beharrik.

Atzerritar jatorriko biztanleen kontsumoaren diru kopuruen eta EAeko administrazio publikoetatik jasotzen dituzten diru kopuruen alderaketak 818 milioi euroko aldea erakusten digu. Hots, handiagoa da atzerritar jatorriko biztanleriak euskal ekonomiari egindako ekarpena Administrazio Publikotik jaso duena baino. Alde horretatik, bi kopuru horiek konparatetik ateratako emaitzaren interpretazioak orientagarria izan behar du ere, eta ez zergengatik diru-sarrerak eta gastu publikoa kontrajarriz egindakoa, alderaketa horrek argi erakusten du egiten duten ekarpen ekonomikoa eragiten duten gastua baino askoz handiagoa dela. Horrenbestez, agerian jartzen da, beste behin, faltsuak direla immigrazioak ematen duena baino gehiago jasotzen duela dioten zurrumurruek eta estereotipoak, eta emaitza hori Ikuspegik 2016an egindako inpaktu ekonomikoari buruzko ikerketan ere ikusi zen.



# 7

## Bibliografía

- Ahn, N., Alonso, A. eta Herce, J. A. (2003). Gasto sanitario y envejecimiento de la población en España. *Documentos de Trabajo nº7*. Madrid: Fundación BBVA.
- Aja, E., Carbonell, F., Colectivo Ioé, Funes, J. eta Vila, I. (1999). La inmigración extranjera en España. Los retos educativos. *Colección Estudios Sociales nº1*. Barcelona: Fundación La Caixa.
- Aparicio, R. eta Portes, A. (2014). Crecer en España. La integración de los hijos de los inmigrantes. *Colección de Estudios Sociales nº 38*. Barcelona: Fundación La Caixa.
- Aparicio, R. (2002). El impacto económico de la inmigración: costes para el Estado y movimiento de consumos y salarios. *Cuadernos de Trabajo Social*, 15, 145-176.
- Arriola, J., Gómez, C. eta Andrés, X. (2008). *El impacto económico de la inmigración extracomunitaria en la Comunidad Autónoma del País Vasco*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritzako Argitalpen Zerbitzu Nagusia.
- Borjas, G. J. (1999). The economic analysis of immigration. In O. C. Ashenfelter y D. Card (ed.), *Handbook of the Labor Economics, volume 3A* (pp. 1697–1760). Amsterdam: Elsevier Science B.V.
- De Arce, R. (2010). El impacto económico de la inmigración en España 2000-2009: antes y después de la crisis. *ICE - Retos Económicos Derivados de la Inmigración Económica en España*, 854, 23-35.

- Elias, J. (2011). Inmigración y mercado laboral: antes y después de la recesión. *Documentos de economía "La Caixa" nº20*. Barcelona: Estudios y Análisis Económico La Caixa.
- Fullaondo, A., Fouassier, M., Martín, M. J. eta Fernández, I. (2016). *Immigrazioaren eragin sozioekonomikoa EAEn*. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua.
- González, A. (2002). Efectos macroeconómicos de la inmigración. Impacto sobre el empleo y los salarios de los nativos. *Papers*, 66, 133-153.
- Herce, J. (2016). El impacto del envejecimiento de la población en España. *Cuadernos de Información Económica*, 251, 39-48.
- Observatorio de la Inmigración en Alicante (2005). *Los efectos económicos de la inmigración extranjera. Una aproximación para la Comunidad Valenciana*. Alicante: Vicerrectorado de Extensión Universitaria. Berreskuratua: <https://web.ua.es/es/sedealicante/documentos/pdf/informes-de-inmigracion-de-carlos-gomez-gil/economia-clemente.pdf>
- Oyarzun, J. (2008). Causas y efectos económicos de la inmigración. Un análisis teórico-empírico. *Papeles del Este*, 17, 4-20.
- Notestein, F. (1953). Economic problems of population change. In International Conference of Agricultural Economists (8th : 1952 : Michigan State College), *Proceedings of the International Conference of Agricultural Economists, eighth conference, 1952* (pp. 13-31). London: Oxford University Press.
- Zurita, E., González, M. eta Dávalos, E. (2017). Impacto de la inmigración sobre el crecimiento de la renta per cápita de Ecuador (2001-2015). *Innova Research Journal*, 2(10), 147-161.



# Eranskinak

## 1. eranskina: definizioen glosarioa

### *BPGd nominalaren eta errealaren arteko aldea*

BPGd nominalak denbora-tarte jakin bateko (urtebete, oro har) ondasunen eta zerbitzuen produkzioaren balioari egiten dio erreferentzia (hau da, merkatuko prezioei). BPGd errealak, berriz, produkzio horren balioa adierazten du, baina prezio konstantetan.

BPGd nominalak prezioen igoerak eta beherakadak adierazten ditu, haien inflazioa eta deflazioa; BPGd errealak, berriz, urtebete osoko prezioei erreparatzen die eta, hala, herrialde bereko beste aldi batzuekin alderatzeko aukera ematen du.

### **BPGd-ren formulak: kalkulatzeko metodoak**

Hiru metodo nagusi daude BPGd-ren formula zehatza lortzeko, eta xehetasunez aztertuko ditugu jarraian.

#### *1. Gastuaren bidez:*

Metodo hau eskari agregatuaren kontzeptuan oinarritzen da; kontzeptu horrek lurralde bereko zenbait pertsonak eta erakundek ondasunak eta zerbitzuak merkatuko prezioan erosteko egindako gastuen baturari egiten dio erreferentzia. Hau litzateke BPGd kalkulatzeko formula:

$$\text{BPGd} = K + I + G + (X - I)$$

- *K* letrak kontsumoa adierazten du: familiek irabaziak ateratzeko edo etekinak sortzeko asmorik gabe egindako gastuak.
- *I* letrak inbertsioa adierazten du: pertsonen irabaziak ateratzeko eta/edo etekinak sortzeko asmoz egindako gastuak.
- *G* letrak gastu publikoa adierazten du: Administrazio Publikoak dituen gastu guztien batura.
- *X* letrak esportazioak adierazten ditu: herrialdetik kanpora saldutako produktu edo zerbitzu guztiak.
- *I* letrak inportazioak adierazten ditu: kanpotik kontratatzen diren salgai edo zerbitzu guztiak.

## 2. Errenten bidez:

Metodo hau herrialde bereko pertsona guztien errenten baturan oinarritzen da. BPGd metodo honen bidez nola kalkulatu den jakiteko, formula honi jarraitu behar zaio:

$$\text{BPGd} = \text{Langileen ordainsariak} + \text{Ustiapeneko soberakin gordina}^5 + (\text{Zergak} - \text{Diru-laguntzak})$$

Langileen ordainsariak pertsonen jaso ditzaketen diru-sarrerari egiten diete erreferentzia (bai dirutan, bai enpresek Gizarte Segurantzari egindako ordainketen bidez).

Ustiapeneko soberakin gordinak, berriz, interes efektibo gisa banatzen ez diren enpresen errentei egiten die erreferentzia, bai eta higiezin errentei, aktibo finantzarioei, dibidenduei eta enpresek banatzen ez dituzten aurrezkiei ere.

## 3. Balio erantsiaren metodoa:

Metodo honen bidez, honela kalkulatu da BPGd, funtsean: produkzioa erabiliz eta lurralde geografiko bereko agente produktoreek egindako salmenten edo eskaintzen guztizkoan oinarrituz.

Balio erantsiaren metodoak zenbait fase ditu. Lehena herrialde bateko salmenta guztien balioa (hau da, balio erantsi gordina) kalkulatzeko datza, produkzioarako erabilitako lehengaien eta tarteko ondasunen balioa kenduz. Hots, salmenten guztizko balioa hartu, eta tarteko kontsumoen balioa kendu behar zaio.

---

<sup>5</sup>Ustiapeneko soberakin garbiaren eta kapital finkoaren kontsumoaren arteko baturaren baliokide da. Jabetzaren eta enpresaren errentak barne hartzen ditu, bai eta kapital-kontsumoa ere. Ustiapeneko soberakin gordina lortzeko, oinarritzko prezioetako balio erantsi gordinari soldatuen ordainketa kendu behar zaio; horretarako, aurretik produkzioari lotutako diru-laguntzen eta produkzioari lotutako zergen arteko kendura batu behar zaio.

Nabarmendu dezagun balio erantsi gordina jakiteko, herrialde bateko sektore bakoitzarena kalkulatzeko delata, hasteko, eta, azkenean, denak batzen direla guztizkoa lortzeko.

$$\text{BPGd} = \text{BEGd} + (\text{Zergak} - \text{Diru-laguntzak})$$

## 2. eranskina: kontsultatutako eta aztertutako iturri sekundarioak

### 2. koadroa: Ikerketa hau egiteko aztertutako iturri sekundarioen zerrenda

Kontsultatutako iturria
Pobrezari eta Gizarte Desberdintasunei buruzko Inkesta (PGDI)
Lanbide
Gizarte Segurantzza
EIN
Ikuspegi – Immigrazioaren Euskal Behatokia
Lan Ministerioa
Hezkuntza Ministerioa
Eusko Jauriaritzako Osasun Saila
Eusko Jauriaritzako Hezkuntza Saila
Eusko Jauriaritzako Etxebizitza Saila (VISESA eta ALOKABIDE)
Eusko Jauriaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila
Ogasun eta Ekonomia Saila. Zerga eta Finantza Sistema
EAEko Etxebizitzaren Behatokia
EAEko Jabetzaren Erregistroak eta Erregistratzaileen Elkargoa
Open Data

*Iturria: Txostengileek egina.*



**ikus  
pegi** Immigrazioaren  
Euskal Behatokia  
Observatorio Vasco  
de Inmigración

  
**Cultumetría**<sup>®</sup>